

## EUSKADIKO MUSIKARI GAZTEEN VI. LEHIAKETA

Noiz: **2012ko martxoaren 30 eta 31an**

Non: **Gasteizko “Jesús Guridi” Ikasketa Profesionaleko Kontserbatorioan**

Sarien banaketa eta sarituen kontzertua:

**2012ko apirilaren 1ean, Gasteizko Kontserbatorioko Areto Nagusian**

### PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan har dezakete parte 2011-2012 ikasturtean edozein Kontserbatorio, Oinarrizko edo Lanbide ikasketen Onarturtako Ikastetxetan, edo Euskadiko edozein Musika Eskolatan matrikulatuta dauden eta ondoko deialdiaren artikulua betetzen dituzten ikasle horiek.

### MODALITATEAK

Parte hartzeko modalitateak honako hauek izango dira:

- Tekla
- Akordeoia
- Hari musikatresnak
- Kitarra, arpa eta hari pultzatu musikatresnak
- Haize-egurra
- Haize-metala
- Perkusioa
- Ganbera eta Talde instrumentalak
- Txistu eta musikatresna herrikoiak
- Kantua
- Talde bokalak
- Jazz eta Musika Modernoa
- Konposizioa

Modalitate guztiak banakakoak izango dira, Ganbera, Talde instrumentalak edota bokalak izenekoak izan ezik. Honetan, gutxienezko partaidetza bikoia izango da eta gehienezkoa hamarrekoa. Jazz eta Musika Moderno modalitatean banaka nahiz taldeka parte har daiteke.

### MAILAK

Lehiaketa hiru mailatan banatzen da:

**A Maila:** 16 eta 19 urte bitarteko ikasleak; salbuespena: 17 eta 28 urte bitarteko ikasleak **kantu eta talde bokalen** modalitateetan.

**B Maila:** 12 eta 15 urte bitarteko ikasleak musikatresnen modalitateetan.

**C Maila:** Konposizio modalitatea. Gehienez 20 urteko ikasleak.

Parte-hartzaileen adina, lehiaketaren urtean betetzen duena kontuan hartuko da.

Ganbera, talde-instrumental edota bokaletan adina, talde horren partehartzaileen batz bestekoarena izango da.

## **ERREPERTORIOA**

**1.- A Maila:** Errepertorioa librea izango da. Parte-hartzaileek gehienez 25 minutu izango dute eta gutxienez suite edo sonata estilo desberdineko hiru obra edo atal solte jo behar izango dituzte. Kantu modalitatean errepertorioko hiru obra libre abestuko dute. Obrak gutxienez bi hizkuntza desberdinetan izango dira.

Taldekako modalitateetan, talde bakoitzak -gehienez 25 minutuko saioa- suite edo sonata estilo desberdineko bi edo hiru obra edo atal jo behar izango ditu.

**2.- B Maila:** Errepertorioa librea izango da. Parte-hartzaileek gehienez 15 minutu joko dute eta gutxienez estilo desberdinetako bi obra jo beharko dituzte.

**3.- Goiko maila** bietan pianojotzaile-laguntzailea behar izanez gero, partehartzaileak berak eraman behar izango du.

**4.- Jazz eta Musika Moderno** modalitatean taldearen egitura eta errepertorioa librea izango da. Azkenengo hau inprobisazio, standard egokitua, norberaren konposizio eta abar erakoa izan daiteke. Gehienez 15 minutuko saioa izango du bakoitzak.

**5.- C Maila, Konposizioa:** Gehienez 6 orduko epe batean, parte-hartzaileek epaimahaiak aurretik eskainitako modal-tonala musika-hizkuntzako hasiera tematiko batean oinarrituta, genero aske (instrumentazio, forma, etabar) baten sormen musikal bat egin beharko dute.

## **PROBAK**

**1.-** Modalitate bakoitzean proba bakarra egongo da.

**2.-** Parte-hartzaileek alfabetoaren arabera joko dute. Aurten, **W letra** izan da 2011ko martxoaren 28ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenaren bidez argitara eman zen zozketaren emaitza, Konposizio modalitatean izan ezik. Azken modalitate honetan antolatzaileek erabakiko dute lehiaketa hasteko ordua.

**4.-** Proben hasieraren ordutegia parte-hartzaile kopuruaren arabera izango da, eta antolatzaileek alde aurretik jakinaraziko diete.

**5.-** Ikasteko kabinak nahi izanez gero parte-hartzaileen eskura egongo dira.

**6.-** Probak irekiak eta publikoak izango dira, Konposiziokoa izan ezik. Hau, taldeka eta giltzapean izango da.

## **SARIAK ETA AIPAMENAK**

Parte hartzen duten ikasle saridunek diploma bana jasoko dute.

Bi sari izango dira modalitate bakoitzean, baina sariren bat hutsik geratzea gerta liteke epaimahaiaren balorazioa hala balitz. Epaimahaiak ere sari “ex-aequo”ak emateko aukera izango du.

Epaimahaiak ohorezko aipamenak proposatu ahal izango ditu, lehiakideen kalitatearen arabera hala balegokio.

Modalitate bakoitzako lehenengo saridunak Euskal Autonomiko Erkidean kontzertuak emateko gonbidatuak izango dira 2012-2013 ikasturtearen zehar.

## **NOIZ ETA NON IZANGO DIRA PROBAK**

**Noiz:** 2012ko martxoaren 30 eta 31an

**Non:** Gasteizko “*Jesus Guridi*” Kontserbatorioan  
Konztituzio Plaza 9  
Vitoria-Gasteiz 01009

**Sarien banaketa eta sarituen kontzertua:** 2012ko apirilaren 1ean

Gasteizko “*Jesus Guridi*” Kontserbatorioko Areto Nagusian

## **IZEN-EMATEA**

- 1.- Lehiaketan izena gehienez bi modalitateetan eman ahal izango da.
- 2.- Izen-emaleek beren jatorrizko Kontserbatorio edota Onartutako Ikastetxe eta Musika Eskoletan emango dute izena. Horretarako eskaera-orria eskura izango dute, bai eta web orrialdean ere.
- 3.- Aurreko edizioetan ikasleren batek lehenengo saria irabazi badu ezin izango da modalitate eta maila berdinean aurkeztu.

### **IZEN-EMATEAREN AURKEZPENA**

- 1.- Parte-hartzaileak bere musika-eskolan edo kontserbatorioan aurkeztu beharko du:
  - a) Kontrol agiria behar bezala beteta eta ikaslearen (nagusia bada) edota gurasoen sinadura. (eskaera datu-orria eskuragarri dago <http://concursojovenesmusicosdeuskadi.wordpress.com/> helbidean).
  - b) NANaren fotokopia.
  - c) Aurreikusitako ikastetxe batean 2011-2012 ikasturtean matrikularen agiria.
  - d) Joko duten obren fotokopia bat, (Konposiziozkoan izan ezik).
  - e) Perkusio modalitatean, behar duen musika-tresnak.
- 2.- Izen-ematea aurkezteko epea **2012ko otsailaren 10an** bukatuko da, egun hau barne. Izen-emateak korreoz bidaliz gero zertifikatuak izan beharko dira eta zigiluaren data kontuan izango da epea baieztatzeko.

- 3.- Esandako dokumentazioa ikastetxeek otsailaren 14an baino lehen honako helbidera bidali beharko dute:

**Gasteizko “Jesus Guridi” Kontserbatorioan**

**Euskadiko Musikari Gazteen Lehiaketa**

**Konstituzio Plaza, 9**

**Vitoria-Gasteiz 01009**

**Tlf. Zenb: 945282400**

**Fax: 945268935**

**Emaila : [secretaria@conservatoriovitoria.com](mailto:secretaria@conservatoriovitoria.com)**

- 4.- Behin epea itxita, antolatzaileek Ikastetxe guztiei onartuen zerrenda ofiziala eta ez-onartuen zerrenda jakinaraziko diete. Ezezkoetan, zergatiak ere azalduko dira. Ikasle onartuen zerrenda web orrialdean publikatuko da.

Gasteizko “Jesus Guridi” Kontserbatorioak, aurtengo lehiaketaren antolakuntzaren arduraduna delarik arau hauei buruzko edozein zalantza konponduko du eta lehiaketaren onerako diren neurri egokienak hartuko ditu.

Parte-hartzaileek, bere izena ematearekin, oinarri hauek bere osotasunean onartzen dituzte automatikoki.

Lehiaketa honi buruzko informazio guztia Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioko web orrialdean dago eta eguneratua izango da.

[www.conservatoriovitoria.com](http://www.conservatoriovitoria.com)